

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

ERANSKINAK

IRTEERAK, HAUR HEZKUNTZAN ERABILTZEKO BALIABIDE DIDAKTIKO APROPOSAK

Egilea: Garazi Hernandez Velasco

Zuzendaria: Maite Morentín Pascual

Leioan, 2017ko maiatzaren 18n

AURKIBIDEA

6. Eranskinak	26
I. Eranskina: Nik sortutako eta kontatutako ipuina	26
II. Eranskina: Hurrek sortu zuten hipotesien kartulina	29
III. Eranskina: Nik sortutako eta ikasleek osatutako landa liburua	30
IV. Eranskina: Parkean zuhaitzen inguruan emandako azalpenen eskema	31
V. Eranskina: Irteerak behatzeko erabilitako taula osatuta	32

7. Eranskinak

I. Eranskina: Nik sortutako eta kontatutako ipuina



Patxi eta Leire, Serantes mendiaren magalean dagoen herri txiki batean bizi ziren bi neba-arreba dira. Arratsalde guztiak bezala, Patxi eta Leire parkera joan ziren, baina egun horretan ez zekiten zertara jolastu, zer egin... OSO ASPERTUTA ZEUDEN!



Patxi eta Leire parkeko banku batean esertzea erabaki zuten, arratsalde horretan ea zer egingo zuten erabakitzeko. Baina, bat-batean haize bolada batek, jiraka eta biraka, haien oinetan gelditu zen hosto bat ekarri zuen.

- Hara! zein hosto arraroa! Inoiz ez dut ikusi halakorik! -esan zuen Leire. Egia da - esan zuen Patxi- parke honetan ez dago hosto hori daukan zuhaitzik.

Orduan Leirek erantzun zuen: ziurrenik Serantes mendian dagoen basoko zuhaitz batena izango da.



Momentu horretan biei ideia bera otu zitzaien: Arratsalde horretan ikertzaileak izango ziren! Horretarako haien lupak hartu eta Serantes mendira igo ziren.



Mendian zeudela Leirek kezka bat zuen: Nola jakingo dugu hostoa zein zuhaitzetakoa den?

Oso erraza!- esan zuen Patxik- Behatu besterik ez dugu egin behar. Begiak zabalik baldin baditugu eta arretaz begiratzen badugu hostoen kolorea, tamaina, forma... ikuz dezakegu eta guk daukagun hostoarekin konparatu.



Eta bi hurrek horrela egin zuten. Aurkitu zuten lehenengo zuhaitza arte (encina) bat izan zen. Baina bere hostoak nahiko estuak eta zorrotzak ziren, hortaz ez zen haiek zuten hostoaren berdina. Izan ere, haiena kurbak egiten zituen.



Handik gutxira, beste zuhaitz batekin topo egin zuten. Baina oraingoan Astigarra (Arce) zen. Bere hostoek izar forma zuten, baina Leire eta Patxirenak ez. Horregatik bilatzen jarraitu zuten.



Aurkitu zuten hurrengo zuhaitza Pinua izan zen. Baina Pinuaren hostoak horratzen antz handia dute, beraz ez zen haien hostoaren berdina.

Patxi zuhaitz hori haiek bilatzen zutena ez zela ikustean gogogabetu zen. Ez zuen bilaketa jarraitu nahi. Baina Leirek horrela esan zion: Esfortzu handia egin dugu jadanik! Gogotsu jarraituz gero eta ahalegin handiagoa eginez gero, lortuko dugu! Patxi ados egon zen eta haien ibilbidea jarraitu zuten.






Beste zuhaitz asko arakatu hostoen, mendi tontorrean inoiz ikusi ez zuten zuhaitz bat aurkitu zuten, Haritza zen. Bere hostoak behatzean, haiek zutenaren berdin berdinak zirrela konturatu ziren. **LORTU ZUTEN! ZUHAITZA AURKITU ZUTEN!** Hosto horiek berdeak ziren, kurbak zituzten eta tamaina berekoak ziren!





Bertan zeudela, Patxi eta Leirek haien lupak atera zituzten eta zuhaitza sakontasunez aztertu zuten! Bertan habi bat zegoen, intsektu asko (zizare,, inurri, armiarma) eta Haritzaren fruitua ere ikusi zuten!
Patxi eta Leire hain pozik zeuden non erabaki zuten hurrengo egunean ikusitako guztia haien kideei kontatzea! Liluratuta geldituko ziren!

II. Eranskina: Haurrek sortu zuten hipotesien kartulina



III. Eranskina: Nik sortutako eta ikasleek osatutako landa liburua



IV. Eranskina: Parkean zuhaitzen inguruan emandako azalpenen eskema

Sekuoia erraldoia

- Beste izen bat dauka: Mamut zuhaitza. Zergatik? Nolakoak dira animalia hauek? Eta zuhaitza?
- Altuera: 90 m= 60 andereño inguru/ Parkeko zuhaitzik altuena da.
- Bere enborra gorrixka da.
- 2.500 y 3.000 urte ditu = guk baino askoz urte gehiago ditu.
- Loreak agertzean zuriak daude baina Udaberrian (Irteera egin den momentuan) horixkak jartzen dira.

Ereinetza

- Bere hostoak sukaldatzeko erabiltzen dira edo zenbait sendagile sortzeko
- Zuhaitz hau nahiko baxua da (Sekuoiarekin konparatu)
- Hasiaren olio kolpeetan emateko erabiltzen zen.
- Enbor bat baino gehiago dauka eta nahiko trinkoak dira.

Iparraldeko ezkia

- Zuhaitz ertaina da, ereinetza baino altuagoa.
- Lore zurixkak / horixkak ditu eta multzotan egoten dira. Loreak asko usaindu. Lore hauek infusioak egiteko erabiltzen dira (te antzekoa). Zertarako balio dute infusio hauek? Lasaitzeko, hobeto lo egiteko...

V. Eranskina: Irteerak behatzeko erabilitako taula osatuta

1 ESKOLAK PROPOSATUTAKO IRTEERA

MOTIBAZIOA	
<p>Umeek jarduerarengan interesa erakusten dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irteera aurkeztean interes handia erakutsi zuten, ume batzuek ez ziren inoiz itsasontzi batean edo museo batean egon. - Eskolatik irtetean umeak pozik zeuden, gogotsu, joateko gogoekin. - Bidetik urduri zeuden, motibatuta, irteerari buruz hitz egiten zuten.
<p>Jarduera egiterakoan ondo pasatzen dute. Dibertigarria egiten zaie.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Itsasontzian nahiko ondo, haientzat guztia oso deigarria zen. Hortaz, ondo pasatu zuten eta erakargarria egin zitzairen. - Museoan nekatuago eta aspertuago egon ziren. Azalpen gehiegi egon zen eta manipulaziorik ez, gainera bideo eta irudi asko begiratu behar izan zuten. - Haurrek lurretik esertzen ziren edo museoko beste tokietara mugitzen ziren, gidariaren azalpenak entzun ordez.

ARRETA	
<p>Jarduera egiten den bitartean, umeek helduaren azalpenak jarraitzen dituzte.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gidariaren azalpenak nahiko ondo jarraitu zituzten nahiz eta zenbait atal ez zuten ondo ulertu. Eta galderak egitean batzuek erantzuten zituzten. - Audio-gidek luzatzen zuten informazio ez zuten entzuten. - Oso gutxik jarraitu zituzten azalpenak eta ez zituzten galderak erantzuten. Izan ere, gidariak azalpenak ematen zituen bitartean, haurrek buleta emanda edo hitz egiten egoten ziren.
<p>Talde giroa positiboa da azalpenekin jarraitzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Umeek arreta mantendu zuten, isilik egon ziren azalpenak eman bitartean eta ibilbidea oso ondo jarraitu zuten. - Giroa ez zen oso ona izan, umeek hitz egiten egon ziren eta azalpenak ematen ziren lekuan egon beharrean, ume batzuek beste leku batzuetara jotzen ziren. Beraz, ibilbidea ez zuten ondo jarraitu.

PARTE HARTZEA

Umeeek euren ekarpenak egiten dituzte.	- Umeeek ez dituzte ekarpenik egiten. Umeei ez zitzaaien galdetu haien iritziei buruz edo esperientziari buruz. Bakarrik ea bertan lehenago egon ziren. Bi bisiten kasuan umeen bete beharra entzutea izan zen.
Galderak egiten dituzte.	Adibidez: - Zertarako balio du hau? (Botikina) - Baina hemen ez dago arrainik? Zergatik? (Biltegian egonda)
	Adibidez: - Zer da kofradia?
Ekintzan gogotsu parte hartzen dute.	Haurrak gogotsu daude, batez ere, haientzat deigarriak diren lekuetan: aginte zubian egotean eta timoia erabiltzean edo kamaroteetan oheak ikustean.
	Haurrek, orokorrean, ez zuten interesa erakusten zitzaienagatik.

AUTONOMIA

Jarduera laguntza barik egiteko aukera dute.	Umeei ez zaie proposatu haiek egiteko jarduera edo ariketarik, nahiz eta itsasontziaren eta museoaren web-orrian halakoak eskaini: antzerkiak, tailerrak...
--	---

2 NIK PORPOSATUTAKO IRTEERA

MOTIBAZIOA

Umeeek jarduerarengan interesa erakusten dute.	- Ipuina eta hostoak aurkezteko modua interesa sortu zuen, izan ere, haientzat sorpresa modukoa izan zen. - Ipuina entzutean, interes handia erakutsi, gelan oso gutxitan kontatzen direlako ipuinak. - Hostoak gelara eramatea eta haiek ikertzaileak bihurtzean interesa sustatu zen.
Jarduera egiterakoan ondo pasatzen dute. Dibertigarria egiten zaie.	- Ipuina asko gustatu zitzaaien eta kontatzean disfrutatu zuten, are gehiago, gehienek berriz ere kontatzeko eskatu zidaten.
	- Hostoak aztertzean, batez ere hauek usantzean, barre pilo egin zuten. - Parkean egotean, pozik eta motibatuta zeuden, hostoak aurkitzeko prest.

ARRETA

<p>Jarduera egiten den bitartean, umeek helduaren azalpenak jarraitzen dituzte.</p>	<p>- Gelan primeran zeuden, azalpenak jarraitzen zituzten eta egiten zitzairen galderak erantzuten zituzten eta haien zalantzak luzatzen zituzten (Ad. Orduan hostoa koadernoan itsatsiko dugu? Eta koadernoan etxera eramango dugu?)</p> <p>-Arreta nahiko ondo mantendu zuten eta nik emandako azalpenak entzun zituzten, baina batez ere haien zuhaitza aurkitzen zutenean. Hala ere, parkean beste elementu batzuk zeuden zeintzuk umeen arreta erakartzen zuten: txakurtxoak, haien aitona-amonak...</p>
<p>Talde giroa positiboa da azalpenekin jarraitzeko.</p>	<p>- - Bai azalpenak egitean, bai jarduerak egitean giroa oso ona izan zen. Haurrek jarduera guztietan parte-hartu zuten, azalpenetan niri entzuten zidaten, isilik egoteko momentuetan isilik egon ziren, itxaron behar genuenean pazientziaz itxaron zuten...</p>

PARTE HARTZEA

<p>Umeek euren ekarpenak egiten dituzte.</p>	<p>Hipotesiak egitean eta irudiak behatzean gauza desberdinak komentatzen zituzten, besteak beste: Horrelako zuhaitz bat nire etxe ondoan dago edo argazkian dagoen zuhaitza hemen daukagun hostoak ditu etab.</p> <p>Zuhaitzak bilatzean, haien hipotesi berriak egiten zituzten eta haien arteko zezenketak egiten zituzten:</p> <p>- Ziur nire zuhaitza super altua izango dela!</p> <p>- Hori ez da zure zuhaitza, hosto honek ez du itxura bera.</p> <p>Irteera ostean ekarpenik handiena egin zuten, izan ere, arratsaldeetan edo asteburuetan bilatutako hostoak ekartzen zituzten horiei buruz ikertzeko. Guk bilatutako hostoen antzekoak bilatzen zituzten ea zuhaitz berekoak ziren edo ez jakiteko etab.</p>
<p>Galderak egiten dituzte.</p>	<p>Bai, batez ere zalantzak galdetzeko:</p> <p>- Landa liburua etxera eramango dugu?</p> <p>- Zergatik hosto hau ez du usainik?</p> <p>Adibidez:</p> <p>- Hau zuhaitza da edo landarea? (zuhaizka bat seinalatuz)</p> <p>- Baina orduan, ereintzaren hostoak jaten dira?</p>
<p>Ekintzan gogotsu parte hartzen dute.</p>	<p>- Bai ariketa guztietan, gehienek buru belarri sartu ziren. Adibidez: hostoak sailkatzean guztiek arreta mantendu baten batek okertzen zenean, abisua emateko eta ondoren zergatik ez zegoen zuzen azaltzeko. Edo hipotesiak egitean eta irudiak ikustean galderak egiten zituzten, horri buruz hitz egiten zuten...</p> <p>Eskolatik irten bezain laster, umeen bazeuden gorantz begira haien zuhaitzak bilatzen, galdetzen ea hori haien zuhaitza zen.</p>

AUTONOMIA

Jarduera laguntza barik egiteko aukera dute.

Proposatutako jarduerak umeen autonomia sustatzea bilatzen zuten:

- Hostoak haien kabuz sailkatzea eta gero zuzenketak egitea.
 - Zuhaitzak bilatzeko ardura umeena zen eta gero guztion artean erabaki benetan hori zen zuhaitza edo ez.
 - Landa liburuan marrazkia nahi zuten moduan egin zezaketen
- Hala ere, irakaslearekiko (kasu onetan nireganako) dependentzia zuten, hau da, nire onarpena behar zuten.